

Stabat Mater

Zutik Gurutze ondoan
Ama samiña zegoan,
Ta Semea zintzilik.
Aren arima ituna
Espatak urratu zuna,
an zegoan larririk.

Ain estu ta atsekabea
Seme Barkardun Andre
Amarik onen ua!
Oñazez eta naigabez
Seme kutunaren lanez
Zegoen kupitua.

Nork ez du negar egingo
Jesus'en Ama alango
Oñazez ikusita?
Ama Semek ikustean
Biak oñazez berean
Elkarrekin josita?

Andra Maria'ren omenezko neurtitz eder au, edonok dau ezaguna. Emen erdia baiño ez dogu jarri, gure *Orixé*'k euskeratu ebanez. Ba-zan antxiña, XIII'garren gizaldian, frantziskotar legutxo bat Andra Maria'gazko maite-miñak jota; arek egiña ei da. Jakopone Beneditti eritxon, Todi Perusa'tik ur samar dagoan erriko semea. Gaur, ostera, Bonahentura deunarena ete dan be, esan oi da.

Musikalariak ez eben aztuta itxi neurtitz au. Urteak zear izan diranik ospetsuenak musikaz jarri dabela, esan bear. Joakin Deprés'ek, inok baiño lenago, bost abotsetara jarri eban, izen aundia jaritxirik eresi-lan orren bitartez. Gero, Palestrina'k zortzi abotsetara idatzi eban, oso bikain; au be entzute aundikoa. Steffani'k be beste ainbeste egin eban, 1719'garrenean, *Stabat Mater* bat sei abotsetara idatzirik.

Amazortzigarren gizaldiaren asieran, baiña, eleiz-musika be kontziertu erara taiutzen asita egoan; eta Scarlatti'k *Stabat* bi idazten ditu joera oneri jarraituz, bata lau abotsetara ta bestea bitara, Manuel Astorga'ren *Stabat* be oso goraiptua izan da, ta Pergolesi'na, oindiño geiago.

Orañagoko egunetan, Winter, Boccherini ta Schubert'ek lan ederrak egin dabez, *Stabat* ori dala-ta. Rossini'ren oso entzute aundikoa, 1832'garren urtekoa dogu; guztiz ozen eta eresitsua da berau, opera antzera egiña. Verdi'k be ba-dau beste zentzunez egindako bat.

Eta gaurkoen artean Bourgault-Ducandray ta Poulenc aitatu bear. Lenengo onek *Stabat Mater* txit eder bat eresi biur dauku, abots-batz, bakar, organu, biolontzelu, arpa ta tronbonez joteko. Bigarrenak be, beste bat oso bikaiña, 1950'garrenean egiña.

Agiri danez, olerkari ta musikariak alkarren leian, Andra Maria'ren Gurutz oñekek neke-samiñak aundikiro jaso nai izan dabez. Kistar biotzak ete dau arazo oberik?

Beretarren erruekin
Zigorka zutela zekin
Jesus bere maitea.
Inortxok ere ez lagutzen,
Ta azken arnasak ematen
Ikusi zun Semea.

Ots, Ama, maite-iturri,
Zurekin oñazez bizi
Ar dezadan egizu.
Sutu Kristo'ren maitean
Biotz au, ta Aren aurrean
Atsegiña nagizu.

Ama, nere biotzari
Kristo'ren zauriak jarri,
Otoi, mami-mamian.
Seme orren neke lana
Erdiz bialdu nigana,
Ain maite naun sarian.